

**OHARRA: LAN HAU EGIN DUEN IKASLEAK EZ DU INOLAZ ERE HEMEN AIDERAZTEN DIREN IRITZIEKIN BAT EGITEN**

## *Introducción a la filosofía moral*

Lan hau James Rachelsen filosofo estatubatuarraren *Introducción a la filosofía moral* (1986) liburuaren lehendabiziko sei kapituluaren laburpen bat da, baita haien inguruko iruzkin kritikoa. Liburuaren helburua teoria etiko nagusien errepasso bat eta moralaren oinarrian egon behar duten ideien azterketa egitea da. Iruzkinean, teoria etiko ezberdinei buruzko nire gogoeta eta morala arautzeari lotutako zenbait auzi jorratuko ditut.

### LABURPENA

Zaila da moralaren definizio bakarra ematea, horregatik, autorea moralaren minimoetaz mintzatzen da, edozein teoria moralek eduki beharko lituzken gutxieneko oinarrietaz. Zein dira minimo hauek? Rachelsen arabera, arrazoia eta inpartzialtasuna. Arrazoia beharrezkoa da ezin garelako izatez aldakorak diren sentimenduetan oinarritu epaiketa moralak egiteko, eta aurreiritziak eta berekoikeriak kutsatutako ikuspegi bat edukitzea saihesteko. Inpartzialtasuna berriz, hau da, denei eskubide berberak aitortzea eta ez inori pribilegiarik eskaintzea, ezinbestekoa da arbitrariotasuna gainditzeko.

Liburan, autoreak moralaren oinarriak finkatzen saiatu diren teoria etiko nagusiak aztertzen ditu, haiei buruzko ikuspegi kritiko bat eskainiz. Erlatibismo kulturala da teoria hauetako bat. Haren arabera, kultura bakoitzak arau moral ezberdinak ditu. Honek kolokan jartzen ditu mendebaldearen historian urte luzez nagusi izandako unibertsaltasun eta objektibotasunaren printzipioak. Rachelsek onartzen du erlatibismo kulturalak badituela bere alde onak, besteak beste, kultura ezberdinei buruz ikasteak gure kulturaren, baita besteenen, elementu irrazionalak identifikatzen lagundu diezagukelako. Ezberdintasun batzuk kulturalak direla konturatzeak jarrera irekiago bat izaten lagundu dezake.

Baina autoreak teoria honen arriskueta ere ohartarazten gaitu: Gizarte bakoitzak bere kodigo etiko propioak, eta horrenbestez, bere ongiaren eta gaizkiaren ideia propioak dituela esaten bada, orduan egia moralik ez dagoela onartu beharko genuke. Horrek edozein gauza “haien kultura da” esatearekin justifikatu ahal izatera eraman gaitzake, eta uste dut argi dagoela honen ondorioak nahiko lazgarriak izan daitezkeela. Horretaz gain, egia moralaren desagerpenak aurrerapen moralaren ideia bartzertzea ere ekartzen du.

Beste teoria bat subjektibismo etikoarena da: Teoria honen arabera, gure uste moralak ez dira gure sentimenduetan besterik oinarritzen. Zerbait ona edo txarra dela esan ordez, zerbaitek sentimendu onak edo txarrak sortzen dizkigun bakarrik esan daiteke. Hala ere, teoria honek onartzen du, bere forma sinplean behintzat, esaldi batzuk egiazkoak edo gezurrezkoak direla. Haren garapena den emotibismoak berriz esaten du egiatan desadostasun moralik ez dagoela eta jarrera ezberdinen kontua dela, eta ez dagoela ez gezurrezko ez egiazko esaldirik, jarrera kontua izanik.

Egia morala existitzen dela argudiatzeko, Rahcelek gertakari moralen existentziaren kuestioa planteatzen du. Zabalduak dauden eta bere ustez okerrak diren bi oinarritzko akats azaltzen ditu: Uste izatea gertakari moralak objektiboak direla, planetak eta izarrak diren modu berebean, eta uste izatea gure baloreak sentimendu kontua besterik ez direla. Berak berriz esaten du egia moral bat zuzena edo okerra izango dela hura babesteko ematen diren arrazoiak edo argudioen kalitatearen arabera.

Beste galdera bat proposatzen du autoreak, frogak existitzen al dira etikan? Izan ere, badirudi juizio moralak ezin direla frogatu. Jakina zientziarekin konparatuz etikak ez dirudiela hain baliogarria. Zientzia objektiboa da, eta bere baitan, frogak erakutsi behar dira teoria ezberdinen baliogarritasuna onartua izateko. Etikan ez da hala, baina autoreak dioten bezala, arrazonamendu etikoa eta arrazonamendu zientifikoa ezberdinak izateak ez dio baliorik kentzen etikari.

Hitzbeste eginez, liburuan moralaren eta erlijioaren gaiak ere lantzen dira. Bi gai hauek lotzeak tradizio luzea dauka mendebaldearen kristautasunaren historian. Orain dela gutxi arte, joera izan da esatea morala Jainkoaren agindua betetzea dela. Erlijioaren beherakadarekin, batzuk muturreraino eramanez uste hau, esanez Jainkorik gabe ez dagoela moral posiblea. Rachelsen ustez moralaren ikuskera hau ez da zuzena, moral bakarria onartzen duelako oso era hertsian. Gauzak egiteko eta bizitzeko era zuzen bakarria dagoela siniste hau beste teoriarekin ere lotzen du, adibidez, Hobbes eta Locke bezalako autoreek landutako zuzenbide naturalarekin.

Liburuan jorratzen den beste teoria bat berekoikeria psikologikoarena da. Teoria honen izenak erakusten duen bezala, haren arabera gizakiak ez du sekula eskuzabaltasunez jokatzeko, berekoia baita izatez, hau da, beti jokatzeko bere interesen arabera. Teoria honen baitan arrazoitze ezberdinak egon dira. Hobbesek, adibidez, esaten zuen karitatea botere kontua zela, besteak ez daukanaz probesteko, eta ez bihotz onez egiten den ekintza bat. Autoreak dio arrazoiak berinterpretatzen jarri ezkeren beti aurkituko dugula akzio eskuzabal baten atzean dagoen interes berekoia ezkutua, eta beraz ez dela teoria zuzen bat.

Bukatzeke, Rachelsek egoismo etikoaren auzia ere jorratzen du. Teoria honek, gizakiak nola jokatzeko duen deskribatu ordez, nola jokatu beharko lukeen esaten du. Haren arabera aurrez aipatutako berekoikeria da biderik zuzenena, bakoitzak bere interesen arabera jardutea da egokiena. Honek, hala ere, ez gintuzke denok denon aurkako gerra batean murgilduko, akzio bat ona izateak zuretzako ez duelako esan nahi besteentzako ere ona izan ez daitekeenik.

Autoreak uko egiten dio teoria honi, esanez bai besteen eta bai gure interesak, biak direla garrantzitsuak, eta ez dutela zertan besteenak erabateko kontraesanean egon gureekin, izan ere, besteen eta gure interes eta beharrak nahiko antzekoak dira.

## IRUZKINA

Lehenik eta behin, autoreak plazaratutako moralaren definizioari buruz gauza pare bat esan nahiko nituzke. Rachelek esaten du edozein teoria moralek bi minimo eduki behar dituela: Arrazoia eta inpartzialtasuna. Uko egiten die sentimenduei, balio gabeko gauza irrazional balira bezala. Baina ematen duen adibidea, nik uste, ez da zuzena. Izan ere, Rachelek arrazakeriak eragiten edo sortzen duen nagusitasun sentimendua jartzen du baztertu beharreko sentimendu horien adibide gisa. Baina benetan uste al dugu arrazakeria, eta, beste adibide bat jartze arren, matxismoa ere, sentimendu kontuak direla? Ez al dago haien atzean aparatu instituzional bat, komunikabideen propaganda... Arraza eta generoa, sentimenduak baino, konplexutasun handiko ideak dira, eta logika bat daukate, nahiz guri zentzugabekoa edo okerra iruditu logika hori.

Sentimenduei dagokionez, uste dut ez dutela zertan beti irrazionalak izan, nahiz errealtate materiala ez zuzenki isladatu. Agian, kasu batzuetan lagungarriak izan daitezke sentimenduak era moralki zuzen batean jokatzeko, adibidez, enpatia lantzeak Rachelek seinalatutako inpartzialtasunaren printzipioa era eraginkorrago batean garatzen lagundu ahalko liguke, baita enpatia garatzen ere. Egia da, hala ere, teoria moral bat ezin dela bete betean sentimenduetan oinarritu.

Liburu honek moral unibertsal bat ezartzearen zailtasunak ulertzen laguntzen digu. Izan ere, eztabaida handiak egon dira, eta daude, teoria etiko ezberdinen artean. Pasarte hauetan azaltzen diren teoria ezberdinei gaineko begiratu bat emanda, badirudi bi taldetan bereizi gintzakeela: Alde batetik, moral unibertsal bat bilatzen duten teoriak daude, horretarako teoria etiko ezberdinak garatuz, eta bestetik, moral unibertsal hau ukatzen dutenak.

Lehen laburtutako emotibismo etikoak, adibidez, zerbait ona edo txarra den erabakitzeak kriterio objektiboen eza aldarrikatzen du. Izan ere, korrante honen arabera balio juizioek egiten duten bakarra sentimendu jakin batzuk espresatzea da. Hizkuntza morala termino sentimentaletara murriztuz, ongia eta gaizkiaren definizio unibertsalak ukatzen ditu.

Ondorio bereberera garamatzate erlatibismo kulturalaren inguruko teoria etikoak, zienek ezberdintasun kulturalen ideiarekin defendatzen duen egia moral unibertsalen eza.

Izan dira moral unibertsalaren ideiaaren indargetzearen aurrean erlijiora jo dutenak, eta erlijio kristauaren gero eta indar urriagoa moralaren desagertzearekin identifikatzen dutenak. Ez dut uste, hala ere, erlijioa denik aukera bakarra moral unibertsal bat adosteko. Hori bai, moral unibertsal bat ezinbestekoa iruditzen zait, bestela, edozer gauza ametitzea eta ongia eta gaizkiaren arteko bereizketa suntsitzea besterik etzailgualako gelditzen. Gainera, denok ditugu

intuizio etikoak, era batera edo bestera garatuko ditugunak bizitzan zehar, eta garapen honek nolakoa izan beharko lukeen erabakitzeke gai izan beharko ginatke.

Nire iritziz, Aristotelesek planteatutako eudeimonismoak klabe interesgarriak eskaintzen ditu aztertzen ari garen auzirako. Aristotelesentzako zoriontasuna (*eudaimonia*) ongia gorena zen, zoriontasuna ez zelako beste ezertarako bitarteko, bere hortan helburu bat, helburu gorena, zelako. Eudemonista esaten zaie zoriontasuna gizakion bizitzaren helburu goren gisa hartzen duten etikei. Korrante honetatik nagiko gertu dago besteak beste John Stuart Millen landutako utilitarismoa. Eudemonismoak bezala, gizakiaren helburu gorena zoriontasuna dela esaten du, eta beraz, giza ekintzak helburu hori lortzeko duten baliogarritasunaren arabera epaitu beharko liratekeela. Baina zoriontasuna, zeinentzat? Millen arabera, plazerra amankomuna da, hau da, helburua da ahalik eta jende gehien zoriontsu izatea, eta horren arabera jardun beharko genuke.

Noski, gure etikaren helburua ahalik eta jende gehien zoriontsu izatea dela esatea ez da nahikoa: Zoriontasunak zertan datzan zehaztu behar dugu. Oso zaila, edo agian, ezinezkoa, izango litzake zoriontasuna dakarten edo zoriontasuna edukitzeko gauzen zerrenda unibertsal bat egitea. Hala ere, uste dut posible dela gizakiak bizitza duin bat edukitzeko minimoak ezartzea. Hori da, hain zuzen, 1948an Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalarekin egin zena. Adibidez, elikadura egokia edukitzea giza eskubide bat da, 25.artikuluaren agertzen den bezala. Onartzen badugu elikadura on bat edukitzea giza eskubide bat dela, orduan agian batzuetan, pertsona bat gose eta bitartekorik gabe badago, lapurreta zilegi dela ondorioztatzea beharko genuke. Baina zer puntu arte? Zilegi izaten jarraitzen al du lapurreta horretan bortxa erabiltzen bada? Eta zer gertatzen da pertsona horrek jatekoa baldin badu, baino kalitate txarreko eta luzera kaltegarria den janaria erostera behartua badago, beste batzuk jan ona eta osasuntsua eskura dutela? Moralki ona den mundu batean bizitzeko, denok janari berbera jan behar al dugu?

Argi dago oso konplexua dela etika eta moralaren auzia, baino ez horregatik bazterrean uztekoa. Nire ustez, kezka etikorik gabeko mundu batek nahiko arrisku edukiko litzuke. Nahiz zaila den zerbait era definitiboan esatea hain gai korapilatsuari buruz, iruditzen zait moralak malgua izan behar duela, hein batean, eta findu egin behar dugula errealitate ezberdinetan egokia izan ahal dadin. Aurreko adibidearekin jarraituz, ez da berdina miseria gorrian bizi denak lau sagar lapurtzea edo lapurretarako inolako beharrik ez duenak kapritxo zerbait lapurtzea... Nahiz ekintza bera izan, gai izan beharko ginatke baten eta bestearen arteko bereizketa egiteko, eta nahiz eta lapurreta moralki okerra dela sinetsi, malgutasuna eduki ulertzeko lehendabiziko kasuan bidegabekeria hori beste lehenagotik datorren bidegabekeria batetik datorrela: Ez direla giza eskubideak betetzen.

Horrek ez du esan nahi testuinguru konkretu batera egokitzen den moralak bakarrik direnik egokiak eta dena aldatzen denik kultura edo leku batetik bestera. Izan ere leku ezberdinetan

moldatzeko gai den moralak ez dio zertan unibertsala izateari utzi: Inmanuel Kantek garatutako formalismoaren baitan, adibidez, arau moralek eduki beharreko forma bakarrik ezartzen da, autonomia morala garatzeko gaitasuna ametituz. Adibidez, Kanten imperatibo kategorikoak dio beti jardun beharko genukeela gure jarduna lege unibertsal bilakatu ahalko balitz bezala.

Aurreko lapurretaren inguruko adibidera itzuliz, zera esan nahiko nuke: zaila izan behar duela era moral batean jokatzeko pertsona miseria batean bizi bada, eta oinarrizko beharrak ez baditu asetuak. Izan ere, jakina da pobreziak delinkuentzia dakarrela. Horixe bera azaltzen zen orain dela gutxi El Mundo egunkarian: “*La Policía se prepara para un aumento de los delitos de orden público durante la desescalada por la Covid-19*” zioen azalak, eta azpian, letra txikitan “*Los expertos en seguridad alertan de las consecuencias sociales de la crisis económica generada por el estado de alarma*”. Hau da, estatuak badakiela pobretze orokor bat egongo dela, eta horren aurrean, aparatatu errepresiboa indartzea erabakitzen duela, jakinez beharra dagoenena jendea prest dagoela legea urratzeko. Kasu honetan ezin garbiago ikusten da, nire ustez, nola arau moralen urratze batzuk aurretik egondako bidegabekeria batetik sortzen diren; kausa baino efektua direnak bakarrik zigortzean, arazoaren muina saihesten dugu, eta gainera etengabe erreproduzitzeko bidea irekitzen diogu. Adibide hau ona da, baita ere, legalismo moralaren arazoak ikusteko: Morala ezin da legea jarraitza murriztu, historiak erakusten digun bezala, esklabutza, genozidioa, esfera publikotik emakumearen bazterzea...denak izan direlako legalak.

Laburbilduz, auzi honen izaera konplexua azpimarratzea besterik ez dut, eta seinalatzea bai moral unibertsala ukatzea bai legea urrezko arau moralizat hartzea nahiko arriskutsuak izan daitezkeela, giza eskubideak errespetatzearen ikuspegitik behintzat. Teoria moral egoki batek gehiengoaren zorientasuna hartu beharko du kontuan, eta haren baitan, oinarrizko beharren asetzeak duen garrantzia, gizakiok era moral batean jokatzeko aukera, behintzat, izateko.

### Bibliografia:

Lázaro, Fernando. 2020. “La Policía se prepara para un aumento de los delitos de orden público durante la desescalada por la Covid-19”. *El Mundo*.

